

## 19. GAIA. AORTAKO GAIXOTASUNAK

### ANEURISMAK

#### Definizioa

Arteria baten hormaren dilatazio mugatua eta itzulezina.

Gehienak aortan gertatzen dira, baina beste tokitan ere ager daitezke, adibidez, garuneko arterietan.

#### Sailkapena

- Benetazkoak
  - Sakularrak: Alde batean
  - Fusiformeak: zirkunferentzia osoan
- Pseudoaneurismak dilatazioa hormaren barnean ematen da
- Aneurisma disekanteak
  - Geruza intimo eta erdikoaren artean urratu bat agertzen da, odola zaku horren barnera sartzen da eta urratua handitzen doa.
  - %70-a goranzko aortan gertatzen dira.
  - Arrisku faktorerik garrantzitsuena HTA da.
  - Aneurismaren horma apurtu egin daiteke → odoljario masibo eta larria → urgentzia kirurgikoa.

### AORTA ABDOMINALEKO ANEURISMAK

#### Etiologia

- Idiopatikoa, gehienak
- Traumatismoak
- Ehun konektiboaren gaixotasunak
- Marfan-en sindromea
- Infekzioa ...

## **Sintomatologia**

- Kasu askotan sintomarik gabe garatzen da luzaroan, beste kasu batzuetan kasualitatez aurkitu egiten da beste froga diagnostiko bat egitean.
- Mina: toraxaren behealdean irradia daiteke samara, goialdeko gorputz-adarretara. Baina gehienetan mina aneurisma apurtu edo handitu egiten denean agertzen da.
- Minik gabe izan daiteke larritasun edo ondoeza.
- Batzuk taupada abdominalak sentitzen dituzte aurrerantz makurtzean.
- Aneurisma disekantea: mina + hipoTA, shock, sinkopea, heriotza...

## **Diagnostikoa**

- Sintomatologia + Azterketa fisikoa (palpazioan: aortaren taupadak)
- Rx
- Ekografia
- TAC
- Arteriografia kontrastearekin

## **Tratamendua**

- Medikoa:
  - Aneurismaren tamainaren kontrol zehatza
  - HTA, arrisku faktoreak kontrolatzea
- Kirurgikoa:
  - Elektibo programatua
  - Urgentziazkoa: disekantea/apurtu → arrisku oso altua